


Irudibidez



R.I.P.: euskaltegiak



Hau zoriona! Hau da zientziaren miraria! Hauuu... iraultza! Gure Unaitxok hitz egiten bere gisa ikasteko punta-puntako metodoa. Hemendik aurrera buruhausterik ez, lanetik etxeratutakoan etxeko lanak pakean egiten utziko digu eta. Egunero, pixka batean bederen, egunkaria irakurri, telebista ikusi edota musika entzuteko aukera. Pentsatu ere ez genuen egingo! Ametsak egia bihurtu! Deabru koxkor horrekin pakealdi ederra. *Galderarik ez*. Metodoak *zalanza* guztiei erantzungo bait die eta gure mutikoaren jakinmina erabat aseko du.

* * *

Teknika eta zientzien alorreko iraultzak, gizartean gertaturiko aldaketa sozialek bezala, berebiziko astindua eman die heziketa-sistema zaharrei. Literaturak ondo isladatu du fenomeno hori. Ikusi, bestela, honako izenburuok, zein baino zein adierazkorragoak: Radovan Richta-ren *La civilización en la encrucijada*, Philip H. Coombs-en *La crisis mundial de la educación*, W. Kenneth Richmond-en *La revolución en la enseñanza*, Paul Goodman-en *La des-educación obligatoria*, Ivan Illich-en *Una sociedad desescolarizada*; eta, ezbairik gabe, gure baitan irrimarrakarik handiena egiten diguna, Everet Reimer-ena alegia: *La escuela ha muerto*.

* * *

Dannnba... Dannnba... Hil-kanpaia-
ren danbatekoak zabaltzen ditu haize
hotzak. Akabo euskaltegiak. Barea egin
dute. R.I.P.

* * *

Gorpuak usteltzen, eta irakasleak ez-
beharraz ohartu ez. Negar-zotirik ez.
Ezer gertatu izan ez balitz bezala.
Itsuak. Elkar itsumustuan maite izanak
zoratu egin ditu zeharo. Mundu hone-

tatik at bizi dira txoro horiek. Lurpera-
tu gorpua eta heldu bizitzari!

* * *

Zenbait ikasbideren saltzaileek za-
baldu dute hil-berri hori, zeharbidez
behintzat.

* * *

Gora pedagogia! Behera andragogia!
haurrak, eredu

Hauxe dugu silogismo argitsua, «er-
lijio» berriaren oinarria: «¿Aprendió
Vd. a hablar estudiando?» Ergo, «apren-
da sin estudiar». Gezurra izaki, ordea,
Unaitxoren istorio ustela. Ez bait dago
munduan horrelako miraririk ikusi
duenik.

* Ikaskuntzaren gaitzespena

Ezaguna da oso zenbait adituk *ikasi*
eta *eskuratu* hitzen artean egindako be-
reizketa. *Jabetzea* edo *eskurapena* ama-
hizkuntza bereganatzeko haurrak ira-
kaskuntzarik gabe, era naturalean, egi-
ten duen prozesu ez-kontzienteari da-
gokio. *Ikaskuntza*, aldiz, hizkuntza
arrotz edo bigarren hizkuntza baten
erabileran gaitzeko helduek, baita zen-
bait kasutan helduak ez direnek ere,
segitutako prozesu jakinaren gainekoari.

Argi dago. Zenbait metodo «be-
rri»ren asmatzaileek ikaskuntza eta es-
kurapenaren artean azken hau hobetsi
dute («todo el material ha sido diseña-
do para que cualquier persona, *sin co-
nocimientos gramaticales* previos, pueda
seguir el mismo sistema que usaron
nuestros padres para enseñarnos a ha-
blar»), kasu batzuetan irakaskuntza
erabat baztertuz («en vez de estudiar,
aprenda de forma natural», «un idio-
ma no se estudia, se practica» eta «no
pierda el tiempo estudiando»).

Ez. Jakinaren gaineko ikaskuntzak
ez dio eskurapenari laguntzen. Orduak
eta orduak ariketetan aritzeak ez du
prozesu hori errazten.

Jarrera horiek ikusita, zertan ari dira ikasleak euskaltegietan?

* *Adimenaren iharduera eta eman beharreko denbora*

Ikasleak ez du adimen-lana beharrezko. Hurrek egin behar izan al zuten ala? *Lana* baztertu, eta hizkuntzaren erabileran gaitzea *jolas* bihurtu du. Astirik ez izatea ere ez da oztopo. Zoragarria! Ez naiz txantxetan ari, ez. Hauexek ditugu horien adierazpenak: «no haga trabajar a su mente, siéntese en su butaca preferida, relájese, mire y disfrute», «no requiere memorizar vocabulario o estudiar gramática», «en vez de estudiar, diviértase», «sólo media hora al día»; edo are gutxiago: «su tiempo es oro; si no tiene tiempo ni ganas de estudiar, no importa; Vd. puede aprender mientras trabaja, viaja, descansa o realiza cualquier función mecánica, sin esfuerzo ninguno, sin dedicarle un tiempo específico, automáticamente, directamente a su subconsciente, como aprendió a hablar su lengua materna».

* *Eraitza ezin hobek denbora gutxian*

Arrakasta ziurtatuta. Eta ez nolana-hikoa: «durante las dos primeras semanas (...) usted sabrá defenderse en un aeropuerto y en un hotel; preguntar y orientarse en una ciudad, entendiendo ocho acentos diferentes», «en diez meses aprenderá a hablar, entender y escribir», «ahora sí que hablará», «proporciona satisfacciones y resultados inmediatos».

* *Errentagarritasuna*

Atera kontuak! Ezin errentagarria goak izan. Denbora gutxian eta lan gutxirekin, egundoko etekina!

* *Inguruaren indarra*

Ez dago eragozpenik, ezta muga gaindiezinik ere. Hizkuntzarekin ha-

rreman onak izanez gero, eskurapena berez etorriko da. Ziur! «Aprendería x si fuese 10 meses a y? Seguro. Pues aprenda x como si viviera 10 meses en y. Pero sin desplazamiento alguno».

* *Gu eta gutarrak*

Beste ikasbideekiko jarrera garbi azaldu dute: ez dira osoak. Irakurri, bestela, hona aldatu dudana: «Cada vez que se pone a estudiar, no aprende nada. Es desesperante ... Entonces ¿qué es lo que pasa? Falla el método ¡No Vd.!» «Posiblemente ha comenzado a aprenderlo varias veces pero sin resultados satisfactorios, porque aprender en los sistemas tradicionales es INCOMODO, LENTO Y POCO EFECTIVO». «Nuestro sistema no enseña por mediación de cassettes o videos, sistemas estos que comparados con el nuestro se quedan muy anticuados». Metodo berri hauek osotasunaren goia jo dute: «el programa del siglo XXI», «concebido con las más avanzadas tecnologías pedagógicas y lingüísticas», «ha desarrollado un método pedagógico y lingüístico revolucionario», «su solución definitiva», «plenamente eficaz», «un éxito total». Baina ez hori bakarrik: «mejorará su sentido del humor, su actitud mental y optimismo; en suma, mejorará su seguridad en sí mismo, porque los videocassettes (...) no sólo le van a trasladar a x sino que Vd. va vivir la vida de x en miles de situaciones prácticas». Ba ote dago ezer hoberik esaterik? Apenas.

* * *

Galantak bota dituzte, zientziaren izenean guztiak. Zientzia ote ala sasi-zientzia?

* * *

Zergatik makurtu pedagogiaren aginduetara? Goiko silogismoa sendoa da ala? Helduak bide luzea egina du dagoeneko. Ezagutza askoren jabe da eta bere ama-hizkuntza du ondasunik handienetariko bat, estimatuena ziur

asko. Hizkuntza berri bat ikasten has-
tean, ez du berriro mundua sailkatu eta
beregianatu beharrik, aspaldi egin bait
zuen lan nekoso eta luze hori, hizkun-
tza berria ikastea asko erraztuko diona.
Ez da, ez, *tabula rasa*. Bestalde, umeak
bezalaxe ikasten al du helduak? Haren
eta honen ikaskuntzak oinarri berbera
al du? Eta, hala izanik ere, ez al dago
alderik?

* * *

«Para hablar no se necesita estu-
diar» dio silogismoak. Umeen kasuan,
jakina. Baita, hainbatetan, xede-hiz-
kuntza hitz egiten den giroan murgil-
tzen denean ere. Baina nork ondoriaz-
ta dezake hortik ikasteak ezin duela
hitz egitera eraman?

* * *

Non du oinarria ikastearen gaitzes-
penak? Bat nator honako arrazoi hone-
kin: «jende askok estudiatzen du, bai-
na ez du hitz egiten; estudiatzea $\neq$ hitz
egitea; hitz egitea = ikastea = jakitea».
Gaitzespenaren gibelean, joera forma-
listari eginiko kritika zorrotza ikusten
dut. Joera horrek, besteak beste, ikas-
leari paradigmatik, hitzak moldatzeko
arauak eta hitzekin perpausak egite-
koak aurkeztu dizkio; eta *ariketak*
egin arazten. Baina ez dio hizkuntza
benetako egoeretan aurkitu eta erabil-
tzeko aukerarik ematen. Ikasleak ezin
du hizkuntza benetako helburuak lor-
tzeko moduan erabili, eguneroko bizi-
tze bezala, mezuak ulertu eta igortze-
ko alegia. Nork ez du hori horrela dela
aitortuko?

* * *

Alabaina, badago, nire ustez, ikuspe-
gi formalista ez ahaztu eta ez mespre-
ziatzeko arrazoirik. Ez da, ez, alferrika-
koa, zenbait adituk erizten diotenaren
aurka, xede-hizkuntzaren ezaugarri for-
malei jakinaren gainean erreparatzea;
guztiz alderantziz, behar-beharrezkoa
da, ulermen-mailako hainbat ezagutza

ekoizpen-mailara ahalik eta azkarren
eraman nahi bada bederen. Orain bai
alda genezakeela hona goian aipaturi-
ko «su tiempo es oro» hura. Umeak ez
bezala, ikasle helduak ezin du urte
mordoa eman berari bereziki egokituri-
ko murgil-programa batean xede-hiz-
kuntza oharkabe eskuratzeko. Ez du
horretarako astirik.

Baina, arrazoi praktiko horretaz
gain, badugu geure alde eguneroko es-
karmentuak adierazitakoa ere. Bai. Ba-
dirudi jakinaren gainean ikasteak,
ikaskuntza integratzailearen bidetik,
xede-hizkuntzaren erabileran gaitasun
majoa lortzea eraman dezakeela hel-
dua. Input ulergarri askoren bitartez,
hizkuntza komunikazioan erabiliz eta
haren ezaugarri formalei erreparatuz,
hizkuntza helduaren buru-ondasunen
zati izatera iritsi baitaiteke. Jakinaren
gainean ikasitakoa hainbatetan denbo-
raren poderioz bakarrik irmoki eta
betirako eskuratuko dena barneratzeko
lagungarri aparta gertatuko zaio askori.
Zalantzarik ez.

* * *

Helduen xede-hizkuntzaren eskura-
pena umearenaren moldeetara egoki-
tzen saiatzen direla entzuteak jakin-
mina piztu zidan. Nola moldatu ote
dute metodogile berri horiek prozesu
didaktikoa? Zer esan nahi ote dute *pro-
zesu naturala* diotenean? Hauxe da nire
azterketa xumearen emaitza.

Batzuek bide naturalari eusteko aha-
leginak egiten dituzte, ikasbidearen
nondik-norakoak nahikoa argi azal-
duz: «algo tan fácil y natural como *es-
cuchar - ver - repetir - relacionar*», «es
más fácil aprender primero a hablar y
luego a leer. Sí; los niños aprenden a
hablar antes que a leer. Sin embargo,
los adultos que estudian (...) saben leer
mucho mejor que hablar (?)».

Tomemos un ejemplo simple: las pa-
labras «mamá» o «mesa». Cuando un
niño las *escucha* por primera vez, sólo
son sonidos sin ningún significado. Pe-
ro esos sonidos, **repetidos** una y otra

vez y **conectados visualmente** con una persona determinada (la madre) o con un objeto específico (la mesa), hacen que la mente del niño **las relacione y comprenda su significado**. En ese momento, se produce el *milagro* del lenguaje».

Horregatik ahozkoari garrantzi handiagoa ematen diote irakurri eta idazteari baino.

Beste zenbaitek *asmatutakoak*, aldiz, ez dira urrutitik ere benetako eskurapen naturalera hurbiltzen, nire ustez. Eredu behavioristaren haritik, errepikari berebiziko garrantzia damaiote («asimilación automática por repetición subconsciente»).

* * *

Gustoko tokian, aldaparik ez. Baina xede-hizkuntza eskuratzea jolasa dela, adimenaren iharduera beharrezko ez dela eta denbora gutxiko lana aski dela esatea ere! «Mirariak beti urrun» zioen hark. Eta «urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau» esaera zaharrak.

Prozesu didaktikoa beti atsegina izango dela? Ez, alajaina. Eta zaila zinetan denbora gutxian eta ahalegin handirik gabe arrakasta izatea. Ez dago horrelakorik. Eta ez dut uste inoiz egongo denik. Hizkuntza menderatzea ez da batere erraza; lan handia eskatzen du, astia eman behar da horretan, aspergarria da zenbaitetan, baita mingarria ere.

Gai honetan, ez dago esne-mamitan hazitako haurrik. Erraza al da, ba, hurrentzat ama-hizkuntza eskuratzea? Ahaztuak ditugu zeharo garai hartako nekeak eta frustrazioak. Oroitzapenak gogora ekartzerik balego ... Gure Unai-txok hitz egingo balu... Zergatik egiten du, bada, negar hainbeste aldiz eta halako amorruaz?

Xede-hizkuntza eskuratzea ez da, ez, zeregin mekanikoa, errepika hutsaren bidez zertzen dena (zenbaitek pentsarazi dezakeenaren aurka). Ezagutzeko

prozesuak martxan jarri behar dira eta adimen-lan eskerga egin. Irakaslearen laguntzaz edo nork bere gisa hizkuntza arautzen duten erregelei erreparatu, berauek aurkitu, ondo gogoan hartu... Eta gero aplikatzea ere ez da txantxetako lana, ez. Etengabe saiatu behar. Eta ez nolanahi. Ekintza 'itxietan' 'irekietan' bezalaxe. Azkenotan ikasleak, zenbaitetan txikia bada ere, hizkuntz itemen artean aukerak egin behar ditu; horrek bere hizkuntz baliabideak erabiltzea eskatzen dio, lehen ikasitako *hizkuntz atalak* gogora ekarri eta sormenez jardutea alegia.

Zertarako sortu gezurrezko itxaropenak? Ikasleak lehenxeago edo beranduxeago ametsondoaren kolpea hartuko du eta.

* * *

Hizkuntzarekin harreman onak izatea ezinbesteko baldintza da eskurapena gauzatuko bada, baina ez da nahikoa. Harremanak behar hainbatekoak izateaz gain, entzun edota irakurtzen denak ulergarri izan behar du ikaslearentzat. Baina hortik xede-hizkuntza hitz egiten den herri batean hamar hilabete emanez gero arrakasta ziurtzat ematea ere! Jende asko dago hori lortu ez duena. Aitor dezagun behingoz hizkuntza eskuratzeko denbora eman behar dela, *ondo* eman ere. Egote hutsarekin ezin da arrakastarik itxaron. Ulermenean arrakasta izateak ez dio bermatzen ekoiztekoan ere hori gertatuko denik; are gutxiago bi arlootan maila berdintsua iritsiko denik.

Lehen esan bezala, jakinaren gainera ikaskuntzak lagun dezake xede horiek lortzen, alegia, hizkuntz ezagutzak ulermen-mailatik ekoizpenekora eramanez eta berauek zuzentasunez erabiltzen.

«Erabateko arrakasta ziurtatuta» diote, «no es que sea Vd. una persona especial», «incluso con los menos dotados». Eta ederrena, idatzita ez ikusi arren: «el coeficiente intelectual no se

utiliza». Aupa! Ez dago mugarik! Faktore pertsonalek ez bide dute eraginik.

Psikologiaren historian bi korronte nagusi aritu dira, bata bestearen kontra, ikasprozesuan parterik duten faktoreak eta berauen eragina azaltzen. Batak, jaiotzezkoak nabarmenduz, gizartezkoak albora uzten ditu. Aldaezinak direnez, hezkuntzak beti muga horrekin egingo du topo. Besteak, aldiz, gizartezkoetan sinisten du itsu-itsuan. Dena da eskuragarri. Baita ezinezko dirudiena ere. Oraingoan aztergai ditugun ikasbideak bigarren multzo honetan sartzen dira bete-betean.

Zein hobetsi? Ez bata, ez bestea, nire ustez; bien arteko dialektika baizik. Ikasbide on batek egundoko eragina du ikaslea xede-hizkuntzaren erabileran gaitzeko; baina, beti ere, gaindiezineko mugekin topo egingo duela ahaztu gabe. Ama-hizkuntzan totela dena edo etorri gutxikoa, kasu, totela izango da xede-hizkuntzan ere eta etorri-gutxikoa. Eta kitto! Alferrikakoa da lortu ezin dena agintzea, agindua beti ere zor bait da.

* * *

Arrakasta, eta erabatekoa gainera. Lor al daiteke? Distantziatzko edota nork bere gisa jarraitzeko ikastaroek berez dute alde onekin batera zenbait muga ere. Aurrez aurreko elkarrekintza, pertsonen artekoa, hankamotz geratuko da halabeharrez, behar bezala landu gabe. Bai. Ikastaro hauek, beste hainbatek bezala, beren-berenak dituzte ahulezia edo akats zenbait.

* * *

Errealitatearen printzipioak izan behar luke beti ardatz. Oso txarra da euskara ikastea oso-oso zaila dela esatea, ia ezinezkoa. Aurreritzi psikologiko horrek ondorio kaltegarriak ekarriko bait ditu berekin. Baina hori bezain txarrak dira beste muturreko jarrerak ere. «Dena eskuragarri!» leloa, nire eritziz, erlijiosoagoa da zientifikoa bai-

no: «Sinisten baduzue eta mendi horri esaten badiozue: 'ken zaitez hortik eta zoaz itxasora', hori ere gertatuko da». Horrela balitz! Baina nik dakidanez, ez dago horrelakorik mundu honetan.

* * *

Nork berea goretsi, nola gainera («sistema revolucionario»), eta besterenak arbuiatu eta sutara botatzea ere! Ikasbideak ugari eta ezberdinak dituzu. Batzuk besteak baino hobeak. Batzuk egokiagoak kasu jakin zenbaitetan ikasle zenbaitentzat. Baina guztiak baliagarriak, baita akasdunak ere. Beraz, ausardiaz beste, lotsa gutxi ere behar da «gu eta gutarrak» esateko. Joko zikina da hori, nirekiko. Beren ekoizpenak saltzeko, beti ere zientziaren izenean, hizkera 'oldarkor' bezain 'iraingarri' hori erabiltzea ulerkaitz egiten zait. Areago hainbatetan sona handiko erakunde kulturalak ikasbidearen edota egileen babesle agertzea. Nola onesten dituzte gaizki esaka diharduten idazki zenbait? Etekin ekonomikoak direla bide? Jokaera horrekin erakundeok beren izen ona lohitu besterik ez dute egiten. Pena da!

* * *

Euskaltegia ez da hil. Eta ez dago hiltzorian. Hil-kanpaiak ez du oraindik jo, ezta agonikoak ere. Jakinaren gaineko ikaskuntzak bizirik iraungo du euskara ikasi nahi duen pertsona heldurik dagoen artean. Euskaltegiak beharrezko berrikuntzak ezagutuko ditu, bai. Ikasleari lan autonomia egiteko parada askoz handiagoa eskainiko zaio, bai noski. Baina ikaskuntzaren miraria gerta dadin, etengabeko lan eskeran ari den bitartean, ez du inoiz izateko arrazoia galduko. Ikasleak hitz egiten ikasteko bidean jarriko bait du. Ahalegin horretan, mirariaren egileak arnasa berriaren beharrean aurkituko dira maiz askotan. Agian ikaskuntzaren aurka daudenek sarturiko ziriak eman-

go du horretarako egokiera. Zergatik ez? Sasi-zientzien profetak astintzen gaituenerako, hortxe dugu Unaitxoren argazkia. Txupete horretantxe aurkitu-

ko ditugu zutik irauteko zurkaitzak. Milesker, Unaitxo.

Joanba Bergara